4. Obligaciones y deberes.

* Los empleados y empleadas públicas que desarrollen la prestación de servicios en la modalidad de teletrabajo tendrán los mismos deberes que el resto del personal municipal.

* Las personas teletrabajadoras en el desarrollo del trabajo a distancia, deberán cumplir las instrucciones que haya establecido el Ayuntamiento en el marco de la legislación sobre protección de datos y seguridad de la información. Por este motivo, en ningún caso se autorizará el uso de conexiones que pongan en peligro la seguridad de la comunicación, como las ofrecidas por redes de comunicación compartidas con el público, tales como establecimientos comerciales, de hostelería, de lugares públicos, etc.

* Las personas teletrabajadoras deberán cumplir las condiciones e instrucciones de uso y conservación establecidas en relación con los equipos o útiles



dituzte.

* Udalak bidezkotzat jotzen dituen zaintza- eta kontrol-neurriak hartu ahal izango ditu, telelangileak bere laneko obligazioak eta betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko. Horretarako, baliabide telematikoak ere erabili ahal izango ditu, eta duintasunari zor zaion begirunez jokatuko du neurri horiek hartzerakoan eta aplikatzerakoan. Alde horretatik, ordutegia eta lanaldia betetzen direla egiaztatzeko mekanismoak ezarri eta egokitu ahal izango dira, presentzia kontrolaren sistema erabilita.

* Telelangileen erantzukizuna izango da prebentzio zerbitzuek gomendatutako neurri zuzentzaileak ezartzea, bai aurretiazko prestakuntza ikastaroan ezarritako neurri orokorrak, bai telelangileak egindako kontsulten edo eskaeren ondoriozko neurri espezifikoak. Era berean, telelangileek sintomaren bat sumatzen badute telelaneko lantokian ekipo eramangarriak erabiltzeagatik, ahalik eta arinen eman beharko dute horren berri.

10. artikulua. Laneko ekipamendua.

Egin behar dituzten eginkizunetarako lan eremu egoki bat izan behar dute telelanean aritzeko baimena duten langileek, eta eremu horrek bete egin behar ditu laneko arriskuak prebenitzeko eta segurtasun informatikorako jakinarazi zaizkien neurriak. Hala, telelanerako baimena eman aurretik, langileak lan eremu hori identifikatu beharko du, eta kokapena aldatuz gero, horren berri eman gainbegiraleari eta Lan Arriskuen Prebentziorako zerbitzuari.

Dagozkion zereginak egiteko beharrezko altzariak (mahaia, aulkia eta besteak) eta interneterako konexioa udal langileak jarriko ditu.

informáticos.

* El Ayuntamiento podrá adoptar las medidas de vigilancia y control que estime más oportunas para verificar el cumplimiento por la persona teletrabajadora de sus obligaciones y deberes laborales, incluida la utilización de medios telemáticos, guardando en su adopción y aplicación la consideración debida a su dignidad. En este sentido, se podrán establecer y adaptar a su vez los mecanismos de comprobación del cumplimiento del horario y jornada de trabajo a través del sistema de control de presencia.

* Será responsabilidad del personal teletrabajador la implantación de aquellas medidas correctoras que los Servicios de Prevención recomienden adoptar, bien sean las de carácter genérico establecidas en el curso formativo previo o las específicas como consecuencia de una consulta o petición de la persona teletrabajadora. Asimismo, las personas teletrabajadoras deberán informar lo antes posible acerca de los posibles síntomas que padezcan relacionados con el uso de los equipos portátiles en el puesto de teletrabajo.

Artículo 10. Equipamiento de trabajo.

El personal autorizado para teletrabajar deberá disponer de un espacio de trabajo adecuado a las funciones a desempeñar, que deberá cumplir con las medidas de prevención de riesgos laborales y seguridad informática que le han sido comunicadas. A tal efecto deberá identificar dicho espacio de trabajo con carácter previo a la autorización, y cualquier cambio de ubicación deberá ser comunicado a la persona supervisora y al servicio de Prevención de Riesgos Laborales.

El mobiliario necesario (mesa, silla y otros) para la realización de la tareas correspondientes así como la conexión a internet será proporcionadas por la



Errenteriako Udalak ordenagailu pertsonal bat, beharrezko osagarriekin, eta telefono bidezko komunikazio sistema bat utziko dizkio telelangileari, lanerako eta elkarren arteko komunikaziorako

Errenteriako Udalak ez du bere gain hartuko bestelako gasturik, eta ez dio konpentsazio ekonomikorik emango udaleko langileari, urrutiko zerbitzuak emateko modalitate horretan lanaldia egiteagatik.

Lanaldi osoan bermatuko da telelangilearen eta gainbegiralearen arteko komunikazioa, baita departamentuko gainerako kideen arteko komunikazioa eta telelangileak betetzen duen lanpostuaren zereginak eta funtzioak direla-eta harremanetan dauden pertsona edo erakunde guztien artekoa ere. Alabaina, komunikaziorako prest egonda ere, langileak deskonexio digitalerako eskubidea izan behar du.

Telelana amaitzean, itzuli egin beharko ditu Udalak utzi dizkion gailuak.

11. artikulua. Telelanaren ordutegia baimentzeko prozedura.

Zerbitzua telelanaren bidez emateko baimen eskaerak Giza Baliabideen departamentura bidali beharko dira, horretarako prestatutako eskabide ereduari, 15 egun balioduneko epean, iragarkia *Langileen Ataria* plataforman argitaratzen denetik hasita.

Bete beharreko baldintzak betetzen dituzten eskaerak langile eskatzaile bakoitzaren departamentuko arduradun teknikoei bideratuko zaizkie, txostena egin dezaten.

persona empleada municipal.

El Ayuntamiento de Errenteria facilitará a la persona teletrabajadora un ordenador personal, con los accesorios necesarios, y un sistema de comunicación telefónica para el desarrollo del trabajo y comunicación entre las partes.

El Ayuntamiento de Errenteria no asumirá ningún otro gasto ni procederá a favor del empleado/a municipal compensación económica alguna con motivo de la realización de la jornada laboral en esta modalidad de prestación de servicios a distancia.

En todo momento de la jornada laboral deberá estar garantizada la comunicación entre la persona teletrabajadora y la supervisora así como por el resto de los personas integrantes del departamento y con todas aquellas personas o entidades con las que la persona teletrabajadora tenga contacto por las tareas y funciones del puesto que ocupa; sin perjuicio de ello, esa disponibilidad para la comunicación ha de ser compatible con la preservación del derecho a la desconexión digital.

Al finalizar el teletrabajo, deberán devolverse los dispositivos cedidos por el Ayuntamiento.

Artículo 11. Procedimiento para la autorización del horario de teletrabajo.

Las solicitudes de autorización para la prestación del servicio en teletrabajo deberán remitirse al departamento de Recursos Humanos en el modelo de solicitud confeccionado al efecto en el plazo de 15 días hábiles desde la publicación del correspondiente anuncio en la plataforma *Langileen Ataria*.

Las solicitudes que cumplan los requisitos exigidos, serán remitidas a las personas responsables técnicas del departamento al que esté adscrito el personal que las haya formulado, para emitir informe sobre las mismas.



Departamenturen batean telanean aritzeko eskaera bat baino gehiago badago eta arduradun teknikoak zerbitzua modalitate horretan emateko baimenaren aldeko txostena egiten badu, txostenean adierazi beharko du baimen horiek bateragarriak direla zerbitzua behar bezala ematearekin, eta ezin izango du arrazoi horrengatik langile berririk eskatu baimenek indarrean dirauten bitartean. Era berean, departamentuko arduradunak egindako txostenean bertan zehaztuko dira langile interesdunarekin adostutako lan helburuak; hala ere, horrek ez du kentzen aurrerago, telanean zehar, helburu horiek zabaldu edo aldatu ahal izatea.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoarekin batera, IKT departamentuari txostena egiteko eskatuko zaio, gai hauei buruz: eskatzaileak telanarako proposatutako lantokiaren konektagarritasuna bideragarria ote den, eta zer baliabide telematikoko behar diren. Txosten horretan aztertuko da, halaber, ea badagoen lanpostuaren eginkizunak betetzeko aukerarik konexio hori erabiliz eta horretarako behar diren prestazio teknikoak erabiliz.

Ildo beretik, txostena eskatuko zaio Lan Arriskuen Prebentziorako zerbitzuari, eskatzaileak proposatutako lantokian hartu beharreko prebentzio neurriei buruz.

Eskaera aurkeztu eta bi hilabeteko epean, udal langilearen departamentuko arduradunak, IKT departamentuak, eta Lan Arriskuen Prebentziorako zerbitzuak egindako txostenak ikusita, eta Giza Baliabideen departamentuak egindako ebaluazioa ere ikusita, Giza Baliabideen ordezkariak ebazpen arrazoitua emango du, telan eskaerak baimentzeko edo ukatzeko.

Eskabideak artikuluko honen lehenengo apartatuan

En el caso de que existan más de una solicitud de teletrabajo en algún departamento y la persona responsable técnica informe favorablemente la autorización de la prestación del servicio en esta modalidad, deberá reflejar en dicho informe que dichas autorizaciones son compatibles con la adecuada prestación del servicio, y a tal efecto no podrá solicitar nuevos efectivos por dicho motivo en tanto se mantengan vigentes las autorizaciones. Asimismo, en el mismo informe emitido por la responsable del departamento se especificarán los objetivos de trabajo acordados con la persona trabajadora interesada, sin perjuicio de su posterior ampliación o modificación durante el teletrabajo.

Junto con lo dispuesto en los párrafos anteriores, se solicitará al departamento de TIC que emita informe técnico sobre las necesidades de medios telemáticos y la viabilidad de la conectividad del lugar de teletrabajo propuesto por la persona solicitante. En dicho informe se analizarán, asimismo, las posibilidades de realizar las funciones utilizando dicha conexión y utilizando las prestaciones técnicas requeridas para ello.

En el mismo sentido, se solicitará informe al servicio de Prevención de Riesgos Laborales en relación a las medidas preventivas a adoptar en el lugar de trabajo propuesto por la persona solicitante.

En el plazo de dos meses desde la presentación de la solicitud, y a la vista de los informes emitidos por la persona responsable del departamento al que esté adscrito el o la empleada municipal, el departamento de TIC, el servicio de Prevención de Riesgos Laborales, y la evaluación realizada desde el departamento de Recursos Humanos, la Delegada de Recursos Humanos dictará resolución motivada de autorización o denegación de las solicitudes de teletrabajo.

Las solicitudes presentadas fuera del plazo general



aipatutako epe orokorretik kanpo aurkeztuz gero, izapidetu egingo dira, eta, hala badagokio, baimendu, baldin eta aurreikusitako gehieneko baimenak eman ez badira.

Programaren lehenengo 6 hilabeteak igaro ondoren, beste deialdi bat egingo da baimen berriak emateko, beste deialdi bat ere egingo da, baldin eta programa bigarren urtez luzatzen bada.

12. artikulua. Programa pilotuan parte hartuko duten langileak hautatzean kontuan izan beharreko irizpideak

Hasiera batean 20 langilek parte hartuko dute programan (tefelana egin dezaketen langileen gehieneko kopurua), eta bigarren deialdian 25 izatera iritsi litezke, eta zehazten den kopurua programa bigarren urte batean luzatzen baldin bada.

Eskaeren kopurua aurreikusitako gehieneko baimenen kopurua baino handiago bada, eskaerak ordenatzeko aplikatu beharreko irizpideak hauek izango dira:

1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima diren emakumezko udal langileak, edo diskriminazioaren biktima diren udal langileak, sexu-orientazio eta -identitateagatik, genero-adierazpenagatik edo LGTBI langileen sexu-ezaugarriengatik, edo bestelako diskriminazioaren baten biktima direnak (behar bezala egiaztatuta): 10_puntu.

2. Langilearen bizilekuaren eta lantokiaren arteko distantzia: 10 puntu, gehienez, honela banatuta:

Udalerrri bera: 0 puntu.

Lantokitik 20 km-ra bitarte dagoen udalerrria: 2 puntu.

mencionado en el apartado primero del presente artículo, serán tramitadas y en su caso autorizadas, siempre y cuando no se hayan concedido las autorizaciones máximas previstas.

Transcurridos los 6 primeros meses del programa se efectuará nueva convocatoria para la concesión de las nuevas autorizaciones, y también se efectuará otra convocatoria si el programa fuese prorrogado por un segundo año.

Artículo 12. Criterios a evaluar en la selección de las personas a participar en el programa piloto

El número inicial de personas que participará en el programa será de 20 (Número máximo de personas a realizar teletrabajo), pudiendo llegar a ser 25 en la segunda convocatoria; y el número que se determine en la prórroga del segundo año.

En el supuesto en que el número de solicitudes sea superior al número de autorizaciones máximas previstas, los criterios de aplicación para ordenar las solicitudes de teletrabajo serán los siguiente:

1. Empleadas municipales víctimas de violencia machista contra las mujeres o empleados/as municipales víctimas de discriminación por razón de orientación e identidad sexual, expresión de género o características sexuales de las personas trabajadoras LGTBI u otro tipo de discriminación (debidamente acreditada): 10 puntos.

2. Distancia entre el municipio del domicilio de la persona empleada y su centro de trabajo: hasta un máximo de 10 puntos distribuidos de la siguiente forma:

Mismo municipio: 0 puntos.

Municipios hasta 20 km del centro de trabajo: 2 puntos



Lantokitik 40 km-ra bitarte dagoen udalerrria: 5 puntu.

Lantokitik 40 km-ra baino gehiagora dagoen udalerrria: 10 puntu.

2 puntu gehiago emango dira, baldin eta udal langile eskatzailearen bizilekua ez badago zuzenean lotuta Errenteriako udalerriarekin. Hau da, bizilekuaren udalerrriaren eta Errenterriaren artean zuzeneko garraio publikoko linearik (autobusa edo trena) ez baldin badago.

3. Guraso bakarreko familia, bere kargu 12 urtetik beherako seme-alabaren bat duena: 10 puntu.

4. Langileak bere kargu izatea 12 urtetik beherako adingaberik, edo lehen graduko senitartekoren bat mendekotasuna duena, edo, bestela, gaixotasun larri iraunkorra, mediku txosten bidez egiaztatua; betiere bere kargu dituen horiekin bizi bada, eta zenbat diren gorabehera: 8 puntu.

5. Udal langilearen osasun egoeraren bat (gaixotasuna, patologia, desgaitasuna etab.), behar bezala egiaztatua, non zerbitzua emateko modalitate hori onuragarria izan daitekeen. Horretarako, txostena eskatuko zaio Lan Arriskuen Prebentziorako zerbitzuari: 10 puntu.

6. Lanpostuarekin zerikusia duten ikasketa aratuak egitea: 4 puntu.

7. Lanpostuarekin zerikusirik ez duten ikasketa aratuak egitea: 2 puntu.

8. 60 urte baino gehiago izatea: 4 puntu.

Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du zerrenda honetako lehenengo irizpidean puntu gehien duenak, eta hortik aurrera ere, zerrendaren hurrenkerari jarraituko zaio.

Nolanahi ere, telelaneko baimenak udaleko langileen artean berdintasunez banatuko direla bermatzeko, hasiera batean, gehienez ere bi

Municipios hasta 40 km del centro de trabajo: 5 puntos.

A partir de 40 km del centro de trabajo: 10 puntos.

Se asignarán 2 puntos más en el supuesto en que el lugar de residencia del empleado o empleada municipal solicitante no se encuentre conectado directamente mediante transporte público con el municipio de Errenteria. Es decir, que no exista línea de transporte público directa (autobús o tren) entre el municipio de residencia y Errenteria.

3. Familia monoparental con algún hijo o hija menor de 12 años a cargo: 10 puntos.

4. Tener a su cargo menores de 12 años, o familiares de primer grado dependientes o con enfermedad grave continuada acreditada mediante informe médico con los que se conviva; independientemente de las personas que se tengan a su cargo: 8 puntos.

5. Circunstancias de salud de la persona empleada municipal debidamente acreditada (enfermedad, patologia, discapacidad etc) de forma que esta modalidad de prestación de servicio pueda resultar beneficiosa. A tal efecto se solicitará informe al servicio de Prevención de Riesgos Laborales. 10 puntos.

6. Realización de estudios reglados relacionados con el puesto de trabajo: 4 puntos.

7. Realización de estudios reglados no relacionados con el puesto de trabajo: 2 punto.

8. Edad superior a 60 años: 4 puntos.

En los supuestos de empate se priorizará el alcanzar el mayor número de puntos en el primero de los criterios de la presente prelación, acudiendo correlativamente a los siguientes.

En todo caso, al objeto de garantizar un reparto equitativo de los permisos de teletrabajo entre el personal municipal, en un principio se asignarán



baimen esleituko dira departamentu bakoitzeko, aurreko irizpideen arabera, eta baimenak soberan badaude, gainerakoak puntuazio-ordenaren arabera esleituko dira.

13. artikulua. Eskaerak ukatzeko arrazoiak.

Modalitate ez-presentzialean zerbitzua emateko eskaerak ukatzeko arrazoiak honako hauek dira:

1. Protokolo honetan telelana baimentzeko eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
2. Zerbitzuaren premiak behar bezala bete gabe geratzea, edo eraginkorragoa izatea lanpostu jakin hori modu guztiz presentzialean betetzea; aurrena, betiere, txostena egin beharko du eskatzailearen departamentuko arduradunak.
3. Telelana egingo den lekuan azpiegitura teknologiko mugatuak izatea edo konektagarritasuna bermatzerik ez egotea, IKT departamentuaren txostenean hala egiaztatzen bada.
4. Behar bezala egiaztatutako antolaketa arrazoiak.
5. Telelaneko aurreko aldian, udal langileak ezarritako helburuak bete ez izana. Eskatzailearen departamentuko arduradunaren txostenaren bidez egiaztatuko da hori.

Aipatutako arrazoietakoren bat dagoela ikusiz gero, espediente hori izapidetzean entzunaldia emango zaio langileari, eta egoera horren berri emango zaio langilegoaren ordezkariari.

Hori justifikatzeko inguruabarrak egiaztatu ondoren, Giza Baliabideen ordezkariak baimena ukatzeko ebazpen arrazoitua emango du, 15 egun

hasta un máximo de dos permisos por departamento según los anteriores criterios, y en el supuesto en que se produjese excedente de autorizaciones, las restantes se asignarán siguiendo el orden de puntuación.

Artículo 13. Motivos de denegación.

Las causas de denegación de las solicitudes para la prestación del servicio en la modalidad no presencial serán las siguientes:

1. No cumplir las condiciones requeridas por el presente protocolo para la autorización del teletrabajo.
2. Que las necesidades del servicio no queden debidamente cubiertas, o que desempeñar el puesto de trabajo de manera totalmente presencial resulte más eficiente, en todo caso previo informe de la persona responsable del departamento al que esté adscrito la persona solicitante.
3. Limitaciones de las infraestructuras tecnológicas e imposibilidad de garantizar la conectividad en el lugar del teletrabajo, si así se acredita en el informe del departamento de TIC.
4. Razones organizativas debidamente acreditadas.
5. El incumplimiento por parte de la persona empleada municipal de los objetivos establecidos en el periodo anterior de teletrabajo, acreditado mediante informe de la persona responsable del departamento.

Cuando se compruebe la concurrencia de alguno de los motivos mencionados, en la tramitación de dicho expediente se dará audiencia a la persona trabajadora afectada, y se comunicará a la representación del personal.

Acreditadas las circunstancias justificativas, la Delegada de Recursos Humanos dictará resolución motivada denegatoria de la autorización en el plazo



balioduneko epean.

de 15 días hábiles.

14. artikulua. Aldi baterako etetea.

Modalitate ez-presentzialean jarduteko baimena alde baterako eten ahal izango da, langileei edo zerbitzuaren beharrei eragiten dieten gerora sortutako arrazoiak direla medio.

Espediente hori izapidetzean entzunaldia emango zaio kasuan kasuko langileari. Hori justifikatzeko inguruabarrak egiaztatu ondoren, Giza Baliabideen ordezkariak baimena eteteko ebazpen arrazoitua emango du, etenaldiaren epea adierazita.

15. artikulua. Udalak emandako baimena baliogabetzea eta telelaneko aldia amaitzea

Zerbitzua telelanaren bidez emateko baimena ondoriorik gabe geratu ahal izango da, arrazoi hauek tarteko:

1. Zerbitzuaren beharrak.
2. Zehaztutako helburuak ez betetzea. Hori egiaztatzeko, txostena egingo du udal langilea atxikita dagoen zerbitzuko arduradun teknikoak.
3. Baldintza teknikoak edo laneko arriskuen prebentzio arloko baldintzak ez betetzea.
4. Gerora sortutako arrazoiak; baimena emateko oinarri izan ziren baldintzak eta betekizunak nabarmen aldatu izana.
5. Interesdunak baimenari uko egin izana. Uko egite hori Giza Baliabideen departamentuari jakinarazi behar dio.
6. Telelangilearen eta Udalaren arteko lan harremana amaitu izana.
7. Langileak bete beharreko betebeharrak eta obligazioetako edozein ez betetzea.

Artículo 14. Suspensión temporal.

El permiso para el ejercicio de la modalidad no presencial podrá ser suspendido temporalmente por causas sobrevenidas que afecten al personal o a las necesidades del servicio.

En la tramitación de este expediente se dará audiencia a la persona empleada afectada. Una vez constatadas las circunstancias justificativas, la Delegada de Recursos Humanos dictará resolución motivada de suspensión de la autorización indicando el plazo de suspensión.

Artículo 15. Revocación del permiso por parte del Ayuntamiento y finalización del periodo de teletrabajo.

La autorización para la prestación del servicio en teletrabajo podrá quedar sin efecto por las siguientes causas:

1. Por necesidades del servicio.
2. Por incumplimiento de los objetivos marcados. Este extremo se acreditará mediante informe de la persona responsable técnica del servicio al que esté adscrita la persona empleada municipal.
3. Por incumplimiento de las condiciones técnicas o de prevención de riesgos laborales.
4. Por razones sobrevenidas, alteraciones sustanciales de las condiciones y requisitos que motivaron la resolución de autorización.
5. Por renuncia de la persona interesada que deberá comunicarlo al departamento de Recursos Humanos.
6. Finalización de la relación de empleo de la persona teletrabajadora con el Ayuntamiento.
7. Inobservancia de cualquiera de los deberes y obligaciones que correspondan a la persona



8. Udalak hala eskatuta baliogabetze prozedura abiatzen bada, izapideak egitean entzunaldia emango zaio langileari. Hori justifikatzeko inguruabarrak egiaztatu ondoren, ebazpena emango da.

16. artikulua. Modalitate presentzialera itzultzea.

Zerbitzua telelanaren bidez emateko aldia behin bukatuta, udal langilea modalitate presentzialera itzuliko da eta bere lanaldia modalitate mistoan hasi aurreko egunean zuen berbera izango da.

17. artikulua. Datu pertsonalen babesa.

Telelanean ari direnean, udal langileek datu pertsonalen babesari buruzko legeria beteko dute, eta behar besteko zuhurtziaz tratatuko dituzte lantzen dituzten gaiak, modalitate presentzialean ari direnean bezalaxe.

18. artikulua. Lan arriskuen prebentzioa.

Udaleko Lan Arriskuen Prebentziorako zerbitzuak telelanean diharduten langileei beren jardueraren arriskuen ebaluazioa emango die, bai eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prestakuntza eta informazioa ere, hartara laneko arriskuak saihesteko edo minimizatzeko, eta behar diren prebentzio neurriak ezartzeko.

Horrez gain, telelangileei adieraziko zaie nola atondu behar duten Administrazioaren egoitzetatik at erabiliko duten lantokia, eta zein diren datuak bistartzeko pantailekin lan egiterakoan zaindu beharreko segurtasun eta ergonomia neurriak.

Telelangileek arriskuen ebaluazioan jasotako

trabajadora.

8. En la tramitación del procedimiento de revocación iniciado a instancia del Ayuntamiento, se dará audiencia a la persona empleada municipal afectada. Una vez constatadas las circunstancias justificativas, se dictará la resolución.

Artículo 16. Vuelta a la modalidad presencial.

Finalizado el periodo de prestación del servicio en teletrabajo, la persona empleada municipal volverá a la modalidad presencial con el mismo régimen de jornada que tenía el día anterior al inicio de la prestación del servicio en la modalidad mixta.

Artículo 17. Protección de datos de carácter personal.

En la prestación del servicio de teletrabajo, las y los empleados municipales cumplirán con la legislación sobre protección de datos de carácter personal y tratarán con la debida prudencia los asuntos que conozcan, al igual que cuando desarrollen trabajos de la modalidad presencial.

Artículo 18. Prevención de riesgos laborales.

El Servicio de Prevención de Riesgos Laborales del Ayuntamiento facilitará a las personas empleadas de la modalidad de teletrabajo la evaluación de riesgos de su actividad, así como la formación e información en materia de seguridad y salud laboral, con el fin de evitar o minimizar los riesgos laborales y la aplicación de las medidas preventivas necesarias.

Asimismo, se informará a dicho personal sobre la adecuación de su puesto de trabajo fuera de las dependencias administrativas, así como sobre las medidas de seguridad y ergonomía a adoptar en los puestos con pantallas de visualización de datos.

Las personas empleadas en teletrabajo deberán



neurriak eta Prebentzio Zerbitzuak emandako prestakuntza eta informazioa aplikatu beharko dituzte, bai lan egiteko garaian, bai lantokia diseinatzerakoan ere. Hala ere, Prebentzio Zerbitzuak laguntza eta aholkularitza emango die, telefonoz, hala behar dutenean.

Prebentzio Zerbitzuak lantokian neurri zuzentzaileak hartzea gomendatuz gero, telelangileak izango du horretarako ardura, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 54.9 artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. artikulua. Prestakuntza.

Telelanaren modalitatean aritzeko hautatutako langileek eta haien gainbegiraleek prestakuntza jasoko dute gai hauetan:

- Telelanerako programan baliatuko diren tresna informatikoak eta telekomunikazio tresnak erabiltzeko prestakuntza.
- Segurtasun informatikoa eta datuen babesa eta konfidentzialtasuna.
- Laneko arriskuen prebentzioa.
- Desconexió digitala.

20. artikulua. Programaren jarraipena eta ebaluazioa

Programa pilotuan parte hartzen duen langile bakoitzak bere gainbegiralearekin adostu behar ditu zerbitzuak emateko modalitate honen bidez burutu beharreko lanak eta bete beharreko helburuak eta emaitzak, bai eta helburu eta emaitza horiek betetzen direla kontrolatzeko eta egiaztatzeko tresnak ere, egoki iritzitako maiztasunarekin (maiztasun horrek ezingo du izan, inolaz ere,

aplicar en su trabajo y en el diseño de su puesto de trabajo las medidas previstas en la evaluación de riesgos, así como la formación e información proporcionada en el Servicio de Prevención. No obstante, el Servicio de Prevención le prestará apoyo y asesoramiento telefónico cuando lo necesiten.

En el caso de que el Servicio de Prevención aconseje la adopción de medidas correctoras en el centro de trabajo, serán las personas teletrabajadoras las encargadas de su implantación, de acuerdo con lo previsto en el artículo 54.9 del Texto Refundido del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre.

Artículo 19. Formación.

Las personas seleccionadas para trabajar en la modalidad de teletrabajo y sus supervisores recibirán formación en las siguientes materias:

- Manejo de herramientas informáticas y de telecomunicaciones que vayan a utilizarse durante la realización del programa de teletrabajo.
- Seguridad informática y protección y confidencialidad de datos.
- Prevención de riesgos laborales.
- Desconexión digital.

Artículo 20. Seguimiento y evaluación del programa

Cada participante en el programa piloto deberá acordar con la persona supervisora correspondiente las tareas a realizar y los objetivos y resultados a cumplir mediante esta modalidad de prestación de servicios, así como los instrumentos de control y verificación del cumplimiento de dichos objetivos y resultados, con la periodicidad que se estime oportuna, que en ningún caso será superior a un



hilabete bat baino gehiagokoa).

Gainbegiraleek programa pilotuaren garapenari buruzko txostena egin beharko dute bi hilean behin. Txosten horretan, alderdi hauek adierazi beharko dira, gutxienez: telelanean emandako denbora, helburuen betetze maila, izandako gorabeherak, ateratako ondorioak eta intereseko beste edozein alderdi.

Programa pilotua ebaluatzeko batzorde bat eratuko da, jarraipena egiteko. Batzordekideetako bat langileen ordezkariak proposatuko dute.

21. artikulua. Zerbitzu ez-presentziala ematea salbuespen gisa edo dedikazio berezia tarteko dela

1. Salbuespen gisa, zerbitzu ez-presentziala emateko baimenak eman ahal izango dira, baldin eta honako egoera berezi hauei erantzuteko bada:

- Zerbitzua ohiko lantokitik kanpo eman behar dela-eta (epaitegia, beste erakunde batzuetan diren bilerak eta abar), joan-etorrian ibiltzea ez denean eraginkorra; kasu horretan, lanaldiaren gainerakoa modu ez-presentzialean osatu ahal izango da.

- Zerbitzuaren beharrezan direla-eta, epe laburrean egin beharreko lan espezifiko eta zehatzak sortzen direnean, eta, ondorioz, eraginkorragoa eta egokiagoa denean lan ez-presentzialean aritzea.

- Lanean modu eraginkorragoan aritzeko aukera eman nahi zaienean langile batzuei (mugikortasun-premia bereziak dituztenei, alta medikoa baldintza berezietan hartuta daudenei, edo egokitzapenak behar dituztenei haurdun egoteagatik).

- Beste edozein egoera, zeinean etxetik lan egitea

mes.

Las personas supervisoras elaborarán un informe bimensual sobre el desarrollo del programa piloto en el que se indicará, al menos, el tiempo dedicado al teletrabajo, el cumplimiento de objetivos, las incidencias habidas y las conclusiones extraídas, así como cualquier otra cuestión que se considere de interés.

Se constituirá una comisión evaluadora del programa piloto al objeto de hacer seguimiento del mismo. Uno de los miembros de la comisión será propuesto por la representación del personal.

Artículo 21. Prestación de servicios no presenciales con carácter excepcional y por motivo de dedicación especial.

1. Se podrán conceder con carácter excepcional autorizaciones para la prestación de servicio no presencial que responda a situaciones de carácter especial tales como las siguientes:

- Cuando por razón de la prestación del servicio fuera del centro de trabajo habitual (juzgado, reunión en otras instituciones, etc) el desplazamiento resulte ineficiente, en cuyo caso la jornada restante puede completarse en trabajo no presencial.

- Cuando por necesidades del servicio se deriven encargos específicos y concretos que deban ejecutarse en un breve periodo de tiempo y sea más efectivo y adecuado utilizar la modalidad de trabajo no presencial.

- Cuando se pretenda una incorporación más eficiente al entorno laboral en los supuestos en que las personas trabajadoras tengan necesidades especiales de movilidad, alta médica en condiciones especiales o requieran de adaptaciones durante el periodo de gestación.

- Cualquier otra circunstancia que por motivo de



komeni den, zerbitzua modu eraginkorreetan emango bada.

Edonola ere, salbuespenezko baimen horri heldu ahal izateko, udal langileak eskabidea aurkeztu beharko du Langileen Atariaren bidez, baimena baliatu nahi den eguna baino gutxienez 2 egun baliadun lehenago. Baimena emantzat joko da beharrezko oniritzi guztiak jaso ondoren (arduradun teknikoa edo politikoa, IKTak, Lan arriskuen prebentzioa eta giza baliabideak).

Arduradun teknikoek ere eskatu ahal izango dute salbuespenezko baimena, eta arduradun politikoak sinatu beharko du eskabidea; halaber, dedikazio bereziko lanpostuetan eta bateragarri izan daitezkeen beste batzuetan ere baliatu ahal izango da, baina nahitaezkoa izango da beti eskabidea aurkeztea aurreko atalean jasotako moduan.

Salbuespenezko baimen hori lanaldi zehatzetarako emango da, sei hileko bakoitzean gehienez ere 24 lanalditarako (edo lanaldiaren zati proportzionalerako), betiere udal langileari behar dituen baliabide teknologikoak bermatzeko modua badago.

2. Lanaldi luzatua eta/edo prestasuna duten udal langileek modalitate ez-presentzian luzatu ahal izango dute lanaldia, baldin eta bete beharreko eginkizunekin bateragarria bada hala aritzea. Ildo berean jardun ahal izango dute lanalditik kanpo aparteko zerbitzuak egiteko eskatzen zaien langileek, egin beharreko lanak modalitate ez-presentzian egiteko modukoak badira.

3. Zerbitzu ez-presentziala salbuespenez edo dedikazio berezia tarteko ematen duten langileek telelanerako protokoloaren arau berberak bete beharko dituzte helburuak betetzeari, segurtasunari, datuak babesteari eta laneko

eficiencia en la prestación del servicio aconseje el desarrollo de la actividad laboral desde el domicilio.

En todo caso, para poder acogerse a la citada autorización excepcional la persona empleada municipal deberá presentar solicitud mediante Langileen Ataria con una antelación mínima de 2 días hábiles al día para el que se solicita autorización. La autorización quedará concedida una vez cuente con todos los vistos buenos necesarios (responsable técnico/a o político/a, TIC, Prevención de Riesgos y Recursos Humanos).

Las personas responsables técnicas también podrán acogerse a esta autorización excepcional, debiendo suscribir su solicitud la persona responsable política, así como los puestos de trabajo con dedicación especial, u otros con los que pueda ser compatible, si bien en todo caso será preceptiva la correspondiente solicitud, en los términos expuestos en el apartado anterior.

La citada autorización excepcional se concederá para jornadas laborales concretas, por un máximo de 24 jornadas laborales (o parte proporcional de jornada) al semestre, siempre y cuando pueda garantizarse a la persona empleada municipal los medios tecnológicos oportunos.

2. Las personas empleadas municipales con jornada ampliada y/o disponibilidad podrán desarrollar la prolongación de jornada en modalidad no presencial siempre y cuando sea compatible con las funciones a desempeñar. En el mismo sentido, las personas empleadas municipales a las que se les requiera efectuar servicios extraordinarios fuera de la jornada laboral y sea compatible con los trabajos a desarrollar.

3. La prestación de servicios no presenciales con carácter excepcional o por motivo de la dedicación especial estará sometidas a las mismas normas de cumplimiento de objetivos, seguridad, protección de datos, y prevención de riesgos laborales que las



arriskuen prebentzioari dagokionez, eta hala egin dezaten jarraibide egokiak eman beharko zaizkie.

4. Salbuespenezko egoeretan (osasan-larrialdia, saileko obrak edo behar bezala justifikatutako beste batzuk), salbuespenezko neurriak hartu ahal izango dira, edo telelana egiteko baimenak eman, protokolo honetan aurreikusitakoez harago, betiere udal-langileei dagozkien eskubideak eta bermeak errespetatuz.

22. artikulua. Araudi honetako xedapenak interpretatzea.

Araudi honetan jasotako xedapenen interpretazioari buruzko zalantzak sortzen direnean, Giza Baliabideen departamentuari jakinaraziko zaizkio, eta hark erantzun eta ebatziko ditu. Beharrezkoa bada, programa pilotuaren jarraipenerako batzordea biltzeko deialdia egingo da.

correspondientes al protocolo de teletrabajo, debiendo facilitar a las y los empleados municipales afectados las instrucciones adecuadas para su desempeño.

4. En situaciones excepcionales (emergencia sanitaria, obras de departamento, u otras debidamente justificadas) podrán adoptarse medidas excepcionales o concederse autorizaciones de teletrabajo más allá de lo previsto en el presente protocolo, respetando en todo caso los derechos y las garantías correspondientes al personal municipal.

Artículo 22. Interpretación de las disposiciones de la presente normativa.

Cuando surjan dudas en relación con la interpretación de las disposiciones contenidas en esta normativa, éstas serán comunicadas al departamento de Recursos Humanos desde donde se responderán y se solventarán las mismas. Cuando sea necesario se convocará a tal efecto a la Comisión de seguimiento del programa piloto.

1. ERANSKINA.- Lan arriskuen prebentzioa.

2. ERANSKINA.- Segurtasun informatikoa eta datu pertsonalen babesa.

3. ERANSKINA.- Deskonexio digitala.

4. ERANSKINA.- Ingurumeneko praktika egokien irizpideak.

ANEXO 1.- Prevención de riesgos laborales.

ANEXO 2.- Seguridad informática y protección de datos personales.

ANEXO 3.- Desconexión digital.

ANEXO 4.- Criterios de buenas prácticas ambientales.



I. ERANSKINA

ANEXO I

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

Bistaratzeko pantailak dituzten ekipoekin lan egiteko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak betetzen direla bermatzeko irizpideak (488/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa).

DEFINIZIOAK

Bistaratzeko pantaila: pantaila alfanumerikoa edo grafikoa, edozein dela ere erabiltzeko ikusizko irudikapen-metodoa.

Lanpostua: bistaratzeko pantaila duen ekipo bat, datuak eskuratzeko teklatu edo gailu batez, pertsona/makina interkonexiorako programa batez, bulegotika-osagarriez eta eserleku eta mahai batez hornitua, edo lan-azalera eta hurbileko lan-ingurunea.

Langilea: normalean eta ohiko lanaren zati garrantzitsu batean bistaratzeko pantaila duen ekipoa erabiltzen duen edozein langile.

GUTXIENEN XEDAPENAK

1. Ekipoa

a) Ohar orokorra

Ekipamendua bera erabiltzea ez da arrisku-iturri izan behar langileentzat.

b) Pantaila

Pantailaren karaktereek ondo definituta eta argi konfiguratuta egon behar dute, eta behar besteko dimentsioa izan behar dute, karaktereen eta lerroen arteko espazio egokia izan behar dute.

Pantailaren irudiak egonkorra izan behar du, distira, distira edo bestelako ezegonkortasun fenomenorik gabea.

Pantailadun terminalen erabiltzaileak erraz doitu ahal

PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES

Criterios para garantizar el cumplimiento de las disposiciones mínimas de seguridad y salud relativas al trabajo con equipos que incluyen pantallas de visualización (Real Decreto 488/1997, de 14 de abril).

DEFINICIONES

Pantalla de visualización: una pantalla alfanumérica o gráfica, independientemente del método de representación visual utilizado.

Puesto de trabajo: el constituido por un equipo con pantalla de visualización provisto, en su caso, de un teclado o dispositivo de adquisición de datos, de un programa para la interconexión persona/máquina, de accesorios ofimáticos y de un asiento y mesa o superficie de trabajo, así como el entorno laboral inmediato.

Persona trabajadora: cualquier trabajador que habitualmente y durante una parte relevante de su trabajo normal utilice un equipo con pantalla de visualización.

DISPOSICIONES MÍNIMAS

1. Equipo

a) Observación general.

La utilización en sí misma del equipo no debe ser una fuente de riesgo para las personas trabajadoras.

b) Pantalla.

Los caracteres de la pantalla deberán estar bien definidos y configurados de forma clara, y tener una dimensión suficiente, disponiendo de un espacio adecuado entre los caracteres y los renglones.

La imagen de la pantalla deberá ser estable, sin fenómenos de destellos, centelleos u otras formas de inestabilidad.

El usuario/a de terminales con pantalla deberá poder



izango ditu karaktereen eta pantailaren hondoaren arteko argitasuna eta kontrastea, eta erraz egokitu ahal izango ditu inguruko baldintzetara. ajustar fácilmente la luminosidad y el contraste entre los caracteres y el fondo de la pantalla, y adaptarlos fácilmente a las condiciones del entorno.

Pantailak orientagarria eta nahierara inklinatzeko modukoa izan behar du, erabiltzailearen beharretara erraz egokitzeko modukoa. La pantalla deberá ser orientable e inclinable a voluntad, con facilidad para adaptarse a las necesidades del usuario/a.

Idulki independente bat edo pantailarako mahai erregulagarri bat erabili ahal izango da. Podrá utilizarse un pedestal independiente o una mesa regulable para la pantalla.

Pantailak ez du islarik izan behar, ezta erreberberaziorik ere, erabiltzailea gogaitu dezakeenik. La pantalla no deberá tener reflejos ni reverberaciones que puedan molestar al usuario/a.

c) Teklatua.

c) Teclado.

Teklatuak inklinagarria eta pantailarekiko independentea izan behar du, langileak besoetan edo eskuetan nekerik eragiten ez duen jarrera erosoan har dezan. El teclado deberá ser inclinable e independiente de la pantalla para permitir que el trabajador adopte una postura cómoda que no provoque cansancio en los brazos o las manos.

Teklatuaren aurrean nahikoa leku egon beharko da erabiltzaileak besoak eta eskuak bermatu ahal izateko. Tendrá que haber espacio suficiente delante del teclado para que el usuario pueda apoyar los brazos y las manos.

Teklatuaren gainazalak matea izan behar du, erreflexuak saihesteko. La superficie del teclado deberá ser mate para evitar los reflejos.

Teklatuaren antolamenduak eta teklen ezaugarriak erabilera errazteko joera izan beharko dute. La disposición del teclado y las características de las teclas deberán tender a facilitar su utilización.

Teklen sinboloak behar bezala nabarmendu behar dira, eta lanerako posizio normaletik irakurtzeko modukoak izan behar dute. Los símbolos de las teclas deberán resaltar suficientemente y ser legibles desde la posición normal de trabajo.

d) Lan-mahaia edo -azalera.

d) Mesa o superficie de trabajo.

Lan-mahaiak edo -azalerak islatzaile gutxi izan behar du, behar besteko neurriak izan behar ditu eta pantaila, teklata, dokumentuak eta material osagarria malgutasunez jartzeko aukera eman behar du. La mesa o superficie de trabajo deberán ser poco reflectantes, tener dimensiones suficientes y permitir una colocación flexible de la pantalla, del teclado, de los documentos y del material accesorio.

Dokumentuen euskarriak egonkorra eta erregulagarria izan behar du, eta buruaren eta begien mugimendu deserosoak ahalik eta gehien murrizteko moduan egongo da. El soporte de los documentos deberá ser estable y regulable y estará colocado de tal modo que se reduzcan al mínimo los movimientos incómodos de la cabeza y los ojos.

